

FAXISMOAREN AZTARNAK

Gasteizen politikari frankisten izena daramaten sei kale daude oraindik ere

JENDARTEA / Ion Salgado

Pasa den hilean Memoria Historikoaren Lantaldeak egindako txostena onartu zuen Gasteizko Udalbatzak. Testuak frankismoarekin zerikusia duen sinbologia kentzea edo testuinguruan jartzea gomendatzen du. Halaber, kale izendegia aldatzearen aukera agertzen da, baina Gorka Urtaranek iragarri du jada ez dituela kaleen izenak aldatuko.

Urtarrilaren 30ean izenik jarri ezin izan zaien 36ko gerrako gorpuzkiak hartzeko Duintasunaren Kolunbarioa ireki zuten Elgoibarren. Egun berean, Gasteizko Udalbatzak pauso bat eman zuen hiriko memoria historikoa berreskuratzeko. EH Bildu, EAJ, PSE, Ahal Dugu eta Irabaziko zinegotziek Memoria Historikoaren Lantaldeak Gasteizko Udalari bidalitako irizpe-na onartu zuten. PPko zinegotziak abstenu egin ziren.

Udalbatzak onartutako mozioan azaltzen zenez, Memora Historikoaren Lantaldeak aurkeztu eta zehaztutako hainbat ekintza gauzatu dira azken urteetan. 2015eko martxoaren 18an, esaterako, Estepan Urkiaga Lauaxeta idazlearen bustoa Karmeldarren Komentuaren sarre-rako plazan jarri zen, hortxe izan baitzen kartzela frankista. Eta Martxoak 3 elkartearekin batera, 1976ko sarraskia gogoratzeko monolitoa jarri zen 2013ko azaroaren 18an.

Baina egindakoa ez da nahikoa, eta lantaldeak Valentin de Foronda Institutuaren laguntzarekin egindako dokumentuan memoriaren tokiak adieraztea gomendatzen da. Santa Isabel hilerriko atzealdeko horma txukuntzea eta duintzea, bertako historia azaltzen duen monolitoa jarrita, eta Bakea kalean, Gasteizko kartzela zaharra zegoen kalean, monolito bat jartzea proposatzen da. Halaber, Maria Sortzez Garbia Katedralean da-
goen ikur frankista bertan zer-

gatik dagoen azaldu beharra da-goela dio lantaldeak, «une historikoaren testuinguruan eta sinbologia horren iraupenean arreta jarrita». Olagibel kalean dagoen ikurra kentzea edo ha-ren presentzia azaltzea ere pro-posatzen du, eta Olarizu men-diaren tontorreko gurutzearen izatea testuinguruan jarri behar dela ohartarazten du.

KALE IZENEN GAI NEKO EZTABAIDA

Lantaldeak ohorezko karguetan eta kale izendegi frankistan esku hartzea ere proposatzen du. Zehazki, frankismoari lotutako pertsonen eskainitako titulu, ohorezko kargu, domina eta aipamen guztiak kentzea pro-posatzen du, eta zenbait kalere-n izenak aldatzea edo testuingu-ruan jartzea gomendatzen du. Ballester Apezpikuaren kalea, Bueno Monreal kalea, Pedro Or-bea kalea, Jose Lejarreta kalea, Vicente Abreu Margolariaren kalea eta Luis Maria Uriarte ka-lea aipatzen dira zehazki.

Sei kaleon izenak aldatzeko aukerak eztabaida sakona sortu zuen Gasteizko Udalean. Izan ere, Gorka Urtaran alkateak da-goenek iragarri du ez dituela izenok ukituko. «Ez dut uste Gasteizko kaleen izenak aldatu behar direnik. Alkate bezala, ez ditut hiriko kaleen izenak alda-tuko. Are gutxiago Jose Lejarreta bezalako pertsonen aitortza egi-ten dieten kaleen izenak; nahiz eta Francoren garaiko alkatea izan, pertsona ona izan zen eta gauza asko egin zituen hiriaren eta gasteiztarren alde», azaldu zuen sare sozialetan zabaldua-ko mezuan.

Goian, Olabigel kalean oraindik ere begi bistan den ikur frankista. Behean, Maria Sortzez Garbia Katedralean estalita dagoen ikurra eta Jose Lejarreta izena duen kalea. Matthew CAVANAUGH | EFE





EH Bilduren udal taldeak kritikatu egin zuen alkatearen jarrera, eta Urtaranek memoria historikoaren inguruan dagoen adostasuna arriskuan jarri zuela salatu zuen. «Alderdi politiko guztiek, PPK izan ezik, adostu dugun txostenean argi azaltzen da Gasteizko sei kaleren izenak aldatu edo testuinguruan jartzeko borondatea. Kontsentsu hori kolokan jarri du Urtaranek, bere kabuz hartu duen erabakia- rekin bi urteko lana hondatuz. Adierazpen horrekin alkatea PPrengana hurbildu da eta bali- orik gabe utzi du bilkurara era- mango den txostena», salatu zuen Ane Aristi zinegotziak.

Udal Gobernu-ko iturriek adie- raz- i zuten, Urtaranek ez ditu aipatu- tak- o kaleen izenak alda- tuko, baina testuinguruan jarri- ko ditu, Memoria Historikoaren lantaldearen irizpideak jasotzen duen bezala. Hala, 30eko Udal- bat- zan PPK bakarri geratu zen, abstenitu egin zen eta bere pro- posamenaren alde bozkatu zuen. Bera- ien testuan ez ziren frankisten izenak daramatzaten kaleak aipatzen.

Ernaik kalean erantzun zuen Urtaranek hartutako erabakia.

Gazteek frankisten izenak jasotzen zituzten plakak kendu zituzten kaleetatik eta Araba Buru Batzarraren egoitzaren atean utzi zituzten. «Gasteizko zen- bait kaleren izenak aldatzeko deiari uko egin eta frankismoa- ren babesle izandakoak goraipa- tzen jarraitzearen alde egin duen honetan, Gorka Urtaran alkatea interpelatu nahi dugu zuzenean, eta, aldi berean, gaia- ren inguruan herriaren aldeba- karreko erabakitzeko eskubidea aldarrikatu», esan zuen Ernaik.

«Horregatik, Urtaranek gaia- rekiko hartutako jarrera ikusita, gure hiriaz lotsatzea eragiten duten kaleen izenak kentzea erabaki dugu. Hark ez baditu ka- leen izenak aldatzen, herriak be- rak aldatuko ditu: argi daukagu frankismoaren arrastorik mini- moena ere behin betiko sunsi- tzea ezinbestekoa dela. Horrega- tik, Ballester Apezpikua edo Pedro Orbea bezalako frankis- tak, beste batzuen artean, gogo- ratzen dituzten kaleen plakak kendu ditugu», nabarmendu zuen Ernaik ohar batean.

Testu horretan adierazi zue- nez, «Gasteizek bat egin zuen Maroto bezalako alkate faxista

bat botatzeko, baina halako era- bakien bitartez argi ikus daiteke aurpegi aldaketa besterik ez zela izan: espainola ikurrinagatik, baina elite berdinen mendeko. Horrenbestez, argi utzi nahi du- gu diktaduraren aldeko keinurik egiten duen edonork aurrez au- rre izango gaituela, erdibideko jarrerarik ez dugu onartuko: ez da justifikaziorik frankismoa- ren alde egin zutenak gogora- tzen jarraitzeko».

Lander Garcia Memoria Gas- teiz ekimenaren koordinatzaile- ak parte hartu du Udalbatzak onartutako txostena idatzi zuen lantaldean. Frankisten izenak daramatzaten kaleen izenak ez aldatzeko aukera testuan ager-

Udal Gobernuaren arabera, Urtaranek ez ditu kaleen izenak aldatuko, baina testuinguruan jarriko ditu, Memoria Historikoaren lantaldearen irizpideak jasotzen duen bezala

EH Bilduren udal taldeak Gasteizko alkatearen erabakia kritikatu du. Urtaranek memoria historikoaren inguruko adostasuna arriskuan jarri duela salatu du koalizio subiranistak

tzen dela onartu zuen AleaFM irrati saioan, baina, bere iritziz, «frankistek ez dute inolako omenaldirik izan behar».

«Argi daukagu frankismoa diktadura bat izan zela, giza es- kubideak sistematikoki urratu zituen diktadura bat. Hortaz, diktadura horretan ardurak izan zituztenek ez dute inolako ome- naldirik jaso behar», azaldu zuen. Ildo horretan, Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, EAJkoa bera ere, frankisten izenak zera- matzaten hiru kaleren izenak al- datu dituela gogoratu zuen. Al- daketa horrek ere eztabaida sortu du, PPK Sabino Araba EAJ- ren sortzailearen izena, Dolores Ibarrurri buruzagi komunista historikoarena eta Tomas Zu- malakarregi jeneral karlistarena ere hiriko kale izendegitik ken- tzea proposatu baitzuen. Azke- nean, PPK atzera egin eta mo- zioa kendu zuen sortutako erreakzio «sutsuak» ikusita.

BESTE NEURRIAK

Gasteizen onartutako mozioak gomendio gehiago ere jasotzen ditu. Esaterako, oraindik plaka frankistak dituzten etxebizitza- blokeen errolda eguneratzea plakok kendu ahal izateko. Udal Gobernuak eskutitza bidaliko die auzotarren elkarteei eta etxejabeei Memoria Historikoa- ren Legea betetzeko gonbidape- na luzatu eta sinbolo horiek kentzeko eskatuz.

Urtebeteko epean frankismo- ak Gasteizen eragindako bikti- men errolda ofiziala lantzea ere proposatzen du irizpenak, gaur egun ez baitago horrelakorik. Baita zigortutako eta eraildako udalbatzako kide guztiei, eta, hedaduraz, errepresio frankista- ren biktima izandako gasteiztar guztiei omenaldia eskaintzeko data zehatza ezartzea ere. Zen- tzu horretan, Teodoro Gonzalez de Zarate falangistek fusilatuta- ko alkatearen oroimenez zein errepresio frankistaren biktima izandako gasteiztar guztien oroimenez plaka edo monolito- ak jartzea proposatzen du.

Neurriok errepresioa pairatu zuten herritarrek omentzea du- te helburu. Gertatu zena gogo- ratzea, berriz errepika ez dadin.